



BARREÑA AGIRREBEITIA, Andoni

Euskal Hizkuntza eta Literaturako irakaslea  
Salamanca Unibertsitateko Filologia Fakultatea  
Plaza de Anaya, 1  
37001 Salamanca  
oitz@jalgi.com

BIBLID [1137-1951 (2000), 6; 75-81]

# Hizkuntzaren kalitatea irakaskuntza sistematan

(The linguistic quality of the educational system)

**Z** irakaskuntzak heziketa egoki bat eta kalitatea bermatu beharra dauzka, eta baita hizkuntzari dagokionean ere. Zer da baina kalitatezko hizkuntza? Zeren arabera esan daiteke kalitatezkoa den ala ez? Euskal Herriko irakaskuntza sistemako hizkuntzaren egoera aztertzearekin batera, hobera egiteko proposamen batzuk ere luzatzen dira lan honetan.

**Z** a enseñanza tiene que garantizar tanto una educación correcta como su calidad, aspectos ambos que también han de proyectarse en la lengua. Pero ¿qué se entiende por calidad lingüística? ¿De qué circunstancias depende? Este trabajo examina la situación actual del panorama lingüístico del sistema de enseñanza de Euskal Herria y ofrece una serie de propuestas para su mejora.

**Z'** enseignement doit garantir une éducation correcte et de qualité, deux aspects qui doivent également se retrouver dans la langue. Mais, qu'entend-on par qualité linguistique? De quelles circonstances cela dépend-il? Ce travail étudie la situation actuelle du panorama linguistique du système d'enseignement en Euskal Herria et offre une série de propositions pour son amélioration.



1. Sarrera. 2. Euskararen kalitateaz. 3. Kalitatearen kontua eta hizkuntza trebetasunak. 4. Euskara eta eskolaren kalitatea. 5. Proposamena: eginbeharrak: 5.1. Hezkuntza Saila. 5.2. Unibertsitatea. 5.3. Testu liburuak eta testugileak. 5.4. Arau emaileak eta arau jagoleak. 5.5. Eskola.

## 1. Sarrera

Elebidun izateak ezagutza sistema orokorraren garapenari kalteak ekartzen omen zizkiolako, mende honen lehen erdialdean erabaki politiko eta administratiboak hartzen zituzten askorentzat elebitasuna desegokia izan zen. Mende honen amaierako joera nagusia, ostera, elebitasuna eta eleaniztasuna onuragarritzat jotzea da, ezagutza sistema orokorraren garapen berarentzat zein gure gizarteak dituen premiei erantzuteko.

Gogoan izan behar dugu gure hezkuntza sistemarentzat, hizkuntza kontuetan, helburua gizaki elebidunak prestatzea dela —ez ote litzateke hobe eleaniztunak prestatzea balitz?—. Hezkuntza eta kalitatea ebaluatu behar izanez gero, hezkuntza sistemako hizkuntza guztiak kontuan izan beharko ditugu. Beste berba batzuek ez esanda, gazteak gaztelaniaz eta euskaraz egoki prestatu behar ditugula, eta neurri batean ingeleraz ere bai. Hiru hizkuntzen kalitatea jagon behar dugu, landu behar duguna hizkuntza erabiltzeko ahalmena baita.

Hau dela eta, euskararen kalitatea, hizkuntzaren kalitatea eta hezkuntzaren kalitatea kontzeptuak oso loturik ikusten ditut. Gazteek kalitatezko hizkuntza menderatu beharko dute, euskaraz, gaztelaniaz zein ingeleraz ari direlarik.

Lau ataletan bananduko dut hemen esango dudana. Batetik, euskararen kalitateaz orokorrean jardungo dut. Bestetik, kalitatearen kontua eta hizkuntzaren trebetasunak bereiziko ditut. Hirugarrenik, euskara eta eskolaren kalitateaz arituko naiz. Azkenik, zenbait proposamen eta eginbeharrak aurkeztuko ditut.

## 2. Euskararen kalitateaz

Zeri buruz ari gara euskararen kalitateaz dihardugunean? Kontu hau korapilatsua eta konplexua dela iruditzen zait.

Batetik, euskara aurrera doa. Gero eta euskaldun gehiago dago, euskara gero eta arlo gehiagotan erabiltzen da, gero eta erabilera handiagoa du kalean zein arlo askotan eta abar. Gainera, gauza bera esaten digute Hizkuntza

Politikarako Sailordetzak eginiko inkestek zein beste erakundeek eginikoek.

Bestetik, beste batzuen ustez behintzat, darabilgun euskara gero eta kalitate gutxiagokoa da, *txarragoa*, *okerragoa*, *gaztelaniak kutsatuagoa*. Nonbait *euskañola* ei da gazteek, edo gazte batzuek, erabiltzen dutena. Batzuen ustez egoera katastrofikoa dela ere esan daiteke.

Baina zer izaten da ezegokitzat aipatzen dena? Zein atal edo zein aspektu aipatzen dute ezegokitzat euskararen erabilera okerra azpimarratzen dutenek?

Ahozko erabilera bada bahetzen dena, atal hauek aipatzen dira:

-Gramatika atala. Batetik, egitura okerrak (*\*da polita; daukazu sua?; \*ea aita etorri bada;...*). Bestetik, esapide berriak (*\*si da polita; \*a ke bai; \*zergatik ez dut nahi;...*).

-Fonologia atala. Hotsen galera (tz-ren galtzea, *\*abertxalea; Il-ren galtzea \*oyoa*), azentu ezegokia eta abar.

-Hizkuntzen nahastea edo kode aldaketa. Gaztelaniazko hitzak eta esapideak euskarazko diskurtsoaren barruan sartzea (*\*egia da, porque lo digo yo; \*atzo goizean fuimos a los Bilbaos*).

Idatzia bada kritikatu, orduan, ortografiaren kontua, puntuazioren kontua eta gramatika atala (aditz komunztadura okerra, deklinabide marka okerrak,...) izaten dira zuzendu behar direla aldarrikatzen direnak.

Kontu hauek aipatzen direnean, okerrak gehienetan gaztelaniaren eraginez direla esaten da, batez ere gramatikaren eta fonologiaren ataletan.

Harrigarria bada ere, ez batean ez bestean, ez da hainbeste aipatzen komunikagarritasunaren kontua. Hots, diskurtsoaren egituraketa kontuak.

Ez dut ukatuko horrelako akatsak edo okerrak entzun ez ditudanik, eta behin baino gehiagotan. Batzuetan, gainera, nik neuk ere egin ditut. Baina gauza hauek bere tokian jarri behar ditugula iruditzen zait.

Hizkuntza guztiak aldatzen dira eta euskara ere aldatuz doa. Hizkuntzalaritzaren arloan hizkuntzaren aldaketaren fenomenoak guztiz ezaguna eta arrunta da. Hizkuntza bat inguruko hizkuntzek eraginda alda daiteke, baina barne aldakuntza ere arrunta da. Aldaketak lexikoan, fonologian zein sintaxian gertatzen dira. Bada, beraz, aldaketarako bidea eta badira euskararen barruko sistema jarraiturik gertatzen diren aldaketak. Dena ez da nahitaez gaztelaniaren edo inguruko hizkuntzen eragina. Baina bada gure

**“ Hizkuntza zuzentasuna epaitzean eta erabakitzean, malguagoak izan beharko genuke. Gauza bat da estandarra behar izatea eta bestea berau denok nahinoiz edonola nahinon bete behar izatea**



arteana aldaketa guztiak gaztelaniaren eraginari leporatzeko joera. Adibide bat jarriko dut. *DBH*-ko 4. ikasmilako *Euskal Hizkuntza eta Literatura* liburu baten, zeinetan ez dut esango, zera esaten da: *Euskaldun batzuek eta giro erdaldunetan batez ere, NOR-NORK eta NOR-NORI-NORK nahasten dituzte gaztelaren eraginez, hizkuntza honetan egitura bera erabiltzen baita, te he visto (a tí) -> \*ikusit ditzut. Baina, hain argi ote dago gaztelaniaren eragina dela? Kontua da euskara jatorra dela zuri itxaron ditzut eta zuri laguntzen ditzut. Hau da, itxaron eta lagundu aditzek, eta beste zenbaitek ere, adibide hauetan daukaten osagarri bakarrarentzat NORIren kasu marka eta NOR-NORI-NORK motako adizki laguntzailea eskatzen dutela. Itxaron eta lagundu bezalako aditzek jokabide hau osagarria gizakia denean islatzen dute. Haurrek eta gazteek, eta heldu askok ere, itxaron eta lagundu aditzekin (eta beste zenbaitekin) egiten dena ikusi, eraman, jo eta beste aditzekin ere egiten dute (\*zuri ikusi ditzut, \*niri eraman didazu, \*lagunari jo diozu). Alabaina, zergatik gaztelaniaren eragina, euskararen barruko eragina nabarmena denean?*

Beste kontu bat da euskararen kalitatearen inguruko balorazioak egitean estandarra eredutzat dugula eta eredu horri aldaketak egitea ez zaigula gustatzen. Ez euskalkietatik datozenak, ez gazteengandik datozenak. Estandarra egitean euskara *ideal* bat eraiki dugula jakin beharko genuke. Nik dakidan neurrian, estandarrak beti idealizazio bati jarraitzen dio eta. Ez dut horrela egin behar ez denik esan nahi. Esan nahi dudana zera da: umeez ezin dutela hizkuntzalari jakintsu talde batek proposatutako euskara eredu menderatu, entzuten dutena baino. Eta askotan ez datoz bat. Halere, argi dago eskolaren zeregina gazteak estandarretik bideratzea dela.

Gainera, edozein hizkuntzaren erabilera mailak daude. Ez dira soilik idatzia eta mintzatua. Mintzatuaren barruan badira guztiz landua dena edo etxean eta lagunekin egiten direnak. Ildo honi jarraiki, gauza jakina da gazteek euren erregistro edo hizkera berezia eraikitzeke izaten duten joera. Ez dakit unibertsala edo kulturala izango den joera hau, baina geurean badela bai. Eta oso pozgarria da niretzat euskaraz ere badela jakitea. Guk ezin dugu gazteen erregistroa kontrolatu, horrela iruditzen zait niri behintzat.

Eskolaren bidez, kalitatezko hizkuntzaren irakaskuntzaz dihardugunean, hizkuntza landuaz dihardugu. Eskolak gazteei hizkuntzaren erabilera landua zein den erakutsi behar die. Idatzizkoa zein ahozkoa. Eskolak segurtatu behar duena erabilera landua da, ez gazteen arteko erregistro edo hizkera bereziaren *euskal jatorrasuna*.

Ezin dugu, beraz, hizkuntza eredu bakarra izan, hizkuntzak egoera ezberdinei erantzutean kalitate parametro ezberdinak eskatzen ditu eta.

Bestalde, ezin dugu ahaztu gizarte elebidunean bizi garenik. Edo beste era batean esanda, euskara dakigunok, beste hizkuntzaren bat ere badakigula eta badarabilgula. Esan nahi dudana zera da: euskaraz dakiten gazteek gaztelaniaren ere badakitela, eta agian ingelera ere bai. Bi edo hiru hizkuntza darabiltzagunean, uka ezinezkoak iruditzen zaizkit elkarrekiko eraginak.

### 3. Kalitatearen kontua eta hizkuntza trebetasunak

Orain arte nolabait aipatu dudana arren, sakondu egin gurako nuke kalitatearen kontua. Kalitatea bai, baina zeren funtzioan? Hau da, kalitateaz dihardugunean, zertaz dihardugu? Zeren arabera erabakiko dugu kalitaterik dagoenentz?

Nork jartzen ditu helburuak? Zein kode da eredutzat jotzen dena? Ahozko erabilera ez-formala epaitzean zer izango dugu erreferente, estandarra ala euskalkia? Gure artean badago joera bat, beti eredu landuaren arauz neurtzea hizkuntza mailari jaramonik egin barik eta, nire ustez, hizkuntzaren maila edo hizkera mota izan beharko genuke gogoan.

Adibide bat jarri nahi dut. Orain dela gutxi ordenadoreaz idaztean zuzentzaile ortografiko bat erabiltzen hasi naiz, eta ez ditzat *lehentxoago, nahinoiz, eritzi* edo *batzuekaz* hitzak onartzen (*lehentxeago, noiznahi, iritzi, batzuekin*). Ilandeko *Egunkaria*-n, ostera, izenburu hau irakurri nuen: *Milako bat lagun elkarretaratu dira autobidearen proiektua salatzeko*, eta gogora hauxe etorri zait:







*Euskeraren Adiskideak* Elkartearen ekimenez Iruñian 1931n sortutako lehen Euskal Eskolako ikasle eta irakasleak.

nork erabaki behar du zeintzuk bai eta zeintzuk ez? Zergatik lehenak ez eta bigarrenak (*milako bat lagun, elkarretaratu*) bai? Nik esan nahi dudana zera da, hizkuntza zuzentasuna epaitzean eta erabakitzean garen baino malguagoak izan beharko genukeela. Gauza bat da estandarra behar izatea eta bestea berau *denok nahinoiz edonola nahinon* bete behar izatea. Gainera, nire eritzian behintzat, estandarrean euskalkietako eta herri hizkeretako askoz ere ekarpen gehiago onartu beharko lirateke —adibidez, zergatik ez da onartu mendebaleko *NOGAZ* kasua?—.

Antzeko gauza esan daiteke filologoek eta hizkuntzalariek daukagun euskararen ereduari buruz. Badago arrisku edo joera bat, euskara ideal edo idealdu baten atzean ibiltzearena.

Kalitatearen neurketa honetan bada beste kontu bat ere. Zeintzuk dira neurtuko diren parametroak? Gramatika zuzentasuna? Komunikagarritasuna? Erraztasuna? Aurkezpena? Irakurgarritasuna? Zeren, adibide bat jartzearen, badira gramatika oso ondo darabiltenak baina komunikagarritasunik ez dutenak. Badira hizkuntza oso ondo erabili arren, esan nahi dutena aditzen ez zaien hiztunak.

Dena, bada, ez da hizkuntzaren sistema fonologikoa, morfologikoa eta sintaktikoa egoki erabiltzera mugatzen.

Bestalde, zeintzuk dira hizkuntzaren trebetasunak? Gaztea nintzenean erakutsi zidaten hizkuntzak lau trebetasun nagusi dituela: *ahozko ulermena, mintzamena edo ahozko ekoizpena, idatziaren irakurmena eta idatzizko ekoizpena*.

Trebetasun hauek garatzeko prozesu kognitibo ezberdinak jarraitzen ditugu. Berauek lantzeko teknika ezberdinak erabiltzen ditugu. Mintzatua eta idatzia prozesu kognitibo ezberdinetan oinarritzen dira. Berauek erakusteko, lantzeko, metodologia ezberdinak jarraitu behar dira. Gainera, helburu ezberdinak dituzte.

Trebetasunak lantzean, bakoitzaren berezitasunak izan beharko ditugu kontuan. Esaterako, ulermena eta irakurmena lantzeko ez dira behar-beharrezko ortografia arauak menderatzea edo deklinabidearen sistema osoa buruz jakitea. Ekoizpena lantzeko ez da beharrezko *NOR-NORK* edo *NOR-NORI-NORK* sistemetako subjuntiboko adizki guztiak jakitea. Une ezberdinak daude, bakoitzean trebetasun ezberdinak aplikatu edo landu egin behar ditugu eta bakoitza garatzeko elementu ezberdinak darabiltzagu.

Gainera, euskaldun mota ezberdinak ere badira. Ez baita gauza bera, etxean euskara

1. Oker ez banago, Xuxen da euskarazko zuzentzaile ortografiko bakarra eta bera da nik pozarren darabildana. Nire kritika ez da ez Xuxen asmatu dutenentzat ez Egunkaria egiten dutenentzat. Haratago doa eta, aldi berean, gugana dator.

garatzea edo eskolako andereñoari entzunik euskara garatzea. Ez da gauza bera etxetik erdalduna izanik eskolaren bidez Tolosan euskara ikastea edo Bizkaiko Ezkerraldeko Santurtzin.

Gogoan izan behar dugu euskal herritar gehienek eskolaren bidez, andereño bati egunero hiru edo bost ordutan entzunda ikasiko dutela euskara. Etxean ikasi dutenekin konparatuz gero, garapen prozesua ez da bera izango. Psikolinguistikaren arloan kontu hau aspaldi jorratu da eta badakigu murgilketa partzialaren bidez hizkuntzaren bat ikasten dutenek denbora gehiago behar izaten dutela. Berezitasun hauek kontuan izatea oso garrantzitsua da. Emandako aurrerapausoa baloratu behar dugu. Euskaldun berriak animatu eta bultzatu egin behar ditugu. Ezin dugu pentsatu ikasle mota ezberdinek helmuga bera dutenik, gutxienez, tarteko helmuga beraiek.

#### 4. Euskara eta eskolaren kalitatea

Euskara dela eta eskola hobetu egin da Euskal Herrian. Euskararen irakaskuntza erronka handia izan da eta Euskal Eskolak irakaskuntza sistema hobetu eta berritu du. Une onak, ez hain onak eta txarrak ezagutu ditugu. Egia da beti ez dela asmatu eta oraindik asko dagoela egiteko. Baina Euskal Eskolak, elebiduna eta eleaniztuna den neurrian, kalitatean gora egiten du eta aurrerantzean ere horrela egingo du. Horrela iruditzen zait niri behintzat.

Azken hogeitun urteetan, gutxi gora behera, Euskal Eskolak kalitatean gora egin duela frogatzeko, jarraian zenbait ezaugarri aipatuko ditut. Ez dira denak, niri garrantzitsuenak iruditzen zaizkidanak baino. Zerrenda luzatu egin daiteke eta beharbada zehaztu ere bai, baina, oro har, baliagarria dela uste dut.

1. Batetik, ikasleak hobeto prestatuta ateratzen dira. Bi edo hiru hizkuntza dakizkitez eta horren alde onuragarri guztiak: integrazioa, adimen garapena, malgutasuna, eta abar. Badirudi, gainera, elebidunak direnek, oro har behintzat, emaitza hobekienak lortzen dituztela ezagutzeko arlo guztietan, ez bakarrik hizkuntza kontuetan.

2. Irakasleak etengabeko prestakuntzara bultzatu ditu Euskal Eskolak. Hizkuntza kontuetan trebatzeaz gain, didaktikan eta metodologian ere trebatu egin behar izan dute. Honek irakaskuntzaren ikuspegi orokorra ere eman die irakasleei eta nabarmena da lortutako berriztapena.

3. Gurasoak partehartze handiagoa izatera ohitu ditu. Eskolaren proiektuan txertatu ditu eta

ekintza pedagogikoaren garrantziaz jabetu dira. Era berean, irakasleria ere gurasoen partehartzearen garrantziaz jabetu da.

4. Eskola eta gizartearen artean harreman handiagoa eta estuagoa lortu du.

5. Euskal Eskolak bere gain izaera esperimentalari hartu du eta honek teknologia berriak eskolan txertatzea izugarri erraztu du eta errazten jarraituko du. Azkenean, eskola gizarteak behar duen tresna dela onartu baitugu, eta gizarteak aldatuz doa.

6. Hizkuntzaren didaktikaren arloan ere aurrerapenak handiak izan dira. Egoera ezberdinei erantzuteko metodo didaktiko berriak asmatu behar izan dira. Horrela, adibidez, murgilketa ereduak Euskal Herrian martxan jarri gurela esan dezakegu, geure berezitasunez behintzat. Proiektua hemen egokitu egin behar izan zen, askotan ikastalde osoa murgiltzen baitzen.

7. Une honetan Euskal Eskola ebaluatzeko metodologia ere sortzen eta sakontzen ari da. Hainbat eskola eta ikastola kalitate proiektuak abian jartzen ari dira. Gogoan izan behar dugu EIFE neurketak, nolabait, bidea zabaldu diola ebaluatze etengabeari eta berau guztiz beharrezkoa da etorkizunerako urratsak asmatzeko eta diseinu berriak taxutzeko.

#### 5. Proposamena: eginbeharrak

Euskal Eskolaren eta euskararen kalitatearen inguruan arazoak daudela egia da. Nik neuk ere uste dut gazteei ez zaiela erakusten euskara landuan, idatziz zein berbaz, diskurtsoa egituratzen. Gure gazteei ez diegu erakusten argudiatzen, azaltzen edo eztabaidatzen, era sistematikoan behintzat. Hizkuntza lantzeko aitzinako teknikan eta metodoetan oinarritzen gara eta helburuak eurek ere, beharbada, zaharkiturik geratu zaizkigu. Ondo dago arazoak zeintzuk diren jakitea, horrela konponbidea errazagoa izan baitaiteke. Alabaina negarra eta uste katastrofistak bazterrean utzi eta lanari ekin behar diogula uste dut. Nik aurrera egiteko ekimen larri batzuk proposatuko ditut.

##### 5.1. Hezkuntza Saila

Hezkuntza Sailak zehatzago adierazi beharko lituzke ziklo eta maila bakoitzaren helburuak. Metodologia bera ere seinatu beharko lukeela uste dut.

Nire ustez, apaltasunez, *Oinarrizko Curriculum Diseinua - Derrigorrezko Bigarren*

*Hezkuntza - Gaztelania, Euskara eta Literatura eta Atzerriko Hizkuntzak* liburuari begiraturik, esaterako, batez ere orokortasunak adierazten direla esango nuke. Oso egokia iruditzen zait bertan proposatzen dena, argi baitago erabilera komunikatiboa dela helburu nagusia. Halere, helburu, metodologia eta eduki zehatzagoak jartzearen alde nago. Hobe litzateke, oraindik ere, materialak sortzea.

Adibidez, zikloka, ikasmilaka eta hiru hilabeteka zehaztu beharko lirateke helburuak, metodoa eta edukiak. DBH osoa, hiru hilabeteka eraturik, zehaztu beharko litzateke. Esaterako, zein testu mota landu behar diren hiru hilabeteko bakoitzean eta zer lortu behar duten gazteek bakoitzean. Horretarako zein metodologia jarraitu behar duen irakasleak eta zer aspektu izan behar duen kontuan. Nola ebaluatuko duen ahaztu barik. Baina benetako ebaluazioaz ari naiz: lortu dena baloratzeaz, lortu ez dena nola berreskura daitekeen zehazteaz eta irakasleak berak egin behar dituen aldaketei buruzko hausnarketaz.

Zehaztasunaren beharra, nire ustez, Hezkuntza Sailak 1997ko abuztuaren 29ko Aldizkari Ofizialean Batxilergoko *Euskal Hizkuntza eta Literatura* irakasgairako eskaintzen duen programan ikus dezakegu. *Helburuak* atala irakurtzerik baino ez dago hori baieztatzeko. Edukien azterketa nahi izanez gero, hamaika adibide jar daitezke.

*1. Euskal dialektologia: datu nagusiak.* Horrela dio. Zeintzuk dira, ostera, datu nagusiak? Interpretazio anbiguoak ekidin egin behar ditugu. *Euskalki nagusien ahozko zein idatzizko testuen identifikazio eta azterketa.* Hori baino ez dio. Zein testu motatan? Zein azterketa? Gainera, zergatik jakin behar du 17-18 urteko gazte batek zubereraz (zuberotarra ez bada) edo Bizkaiko arratieraz (bizkaitarra ez bada) ahozko iketiriko testu bat aztertzen?

*2. Morfologia: deklinabidea, aditza.* Baina zer jakin behar dute? Den-dena? Guk geuk ere ez dakiguna eta ez jakitea ere ardura ez zaiguna?

Hezkuntza Sailaren beste eginbehar bat, nire ustez, irakasleen prestaketan zorrotzagoa izatea da. DBHrako titulatu berriek, antza denez, lizentziatuak izan behar dute. Begiratu al zaio lizentziatuak prestatzen duen *programari* ea irakasleak prestatzen dituen? Edo, irakaskuntza publikora mugatuz, lehiaketak irakasletasuna neurtzen ote du?

## 5.2. Unibertsitatea

Aurreko puntuarekin lotuta, kontuan du EHUK Lehen Hezkuntzarako eta Bigarren Hezkuntzarako irakasleak prestatzen ari dela?

Karreretako programez ari naiz, noski. Non dira didaktikak eta metodologiak lizentziatuetan? Eta zoritxarrez, ez bakarrik hizkuntza kontuetan.

Selektibitate frogaren nondik norakoa ere zehaztu egin beharko luke EHUK. Izugarria da hain denbora gutxian eman diren aldaketak eta zenbatetan egon diren ikasleak, irakasleak, liburu-egileak eta abarrek zer eskatuko den jakin barik. Gainera, frogak, hizkuntzaren komunikagarritasunaren arabera diseinatu beharko litzatekeela iruditzen zait.

Didaktikaren arloan ikerketa bultzatu beharko luke. Hizkuntzaren didaktikaren arloan zein besteetan. Izugarria da azkeneko urteetan arlo honetan egin den ikerketa murrizta. Harrizkoa da arlo honi eskaini zaion indarra eta dirua ikustea.

## 5.3. Testu liburuak eta testugileak

Testu liburu barik ez dago erreformarik. Guztiz konbentziturik nago. Ez dakit nola izan beharko litzatekeen, baina horrela da. Horregatik uste dut erreforma bultzatu duen erakundeak eta testugileek benetako elkar lanari ekin beharko lioketela eta metodologia komunikatiboan oinarrituriko testu liburuak bultzatu beharko litzaketela.

## 5.4. Arau emaileak eta arau jagoleak

Oro har, arau emaileek, edo beharbada arau begiraleek, malguagoak izan beharko luketela uste dut.

Adibide bat jartzearen, zera esango dut, askotan pentsatu dut EGA frogak bat-batean egin beharko banu ez nukeela gaintutako. Froga honetan jartzen diren ariketa motek ikasketak teknika bereziak eskatzen dituzte eta, horrez gain, hortik zehar dauden ariketa liburuetan niretzat egokiak diren egiturak ez dituzte zuzentzat hartzen.

Adibideak jarriko ditut, baina orain arte egin dudana bezala, iturria ezkutatu egingo dut.

Ariketa batean hauxe irakur daitezke: *Eskolara sartu bezain pronto deiadarka hasten da.* Berridazteko zera eskaintzen da: *orduko.* Nork berak, *orduko* hitza erabiliz, goiko esaldiaren baliokidea asmatu behar du. Kontua da bizkaieraz *orduko* ez dela *bezain pronto*. Guretzat *etorri ala* litzateke *etorri bezain pronto*, baina *etorri orduko*, *etorri baino lehen* da.

Beste berridazketa adibide bat: *Txakurretatik ahalik eta urrunen askoz hobe.*



“ Hezkuntza Sailaren eginbeharretako bat, irakasleen prestaketan zorrotzagoa izatea da. Begiratu al zaio lizentziatuak prestatzen duen programari ea irakasleak prestatzen dituen? Edo, irakaskuntza publikora mugatuz, lehiaketak irakasletasuna neurtzen ote du? ”



Berridazteko zera aipatzen da: *denik eta*. Nik neuk ez dut asmatu. Erantzunetara jo dut eta hauxe aurkitu dut: *Txakurretatik denik eta urrunen askoz hobea*. Nik esaldi hori egundo ere ez nuke esango. Nota apalagoa merezi dut horregatik?

Lexikoaren arloan gauzak nahasiagoak daudela iruditzen zait. Hiru adibide jarriko ditut:

Ariketa batean zera irakur dezaket: *Ardia adierazteko ..... esaten zaie umeei*. Hutsunea betetzeko aukera hauek ikus ditzaket: *bildotsa, bekeke eta auma*. Nonbait, *bekeke* izango dela uste dut, baina XUXENek berak ere ez du onartzen.

Hurrengoan zera idatzi dute: *Umeak esneaz aparte ..... dute lehen janaria*. Hutsunea betetzeko aukerak: *ahia, papilote, mama*. Hau badakit, noski, nik neuk ere ugari jan dudalako: *ahia*. Baina nire semeek zer den ere ez dakite, egundo ez dutelako jan. Beste horrenbeste gertatzen zaie euren adinkideei.

Ariketa honetan lau aukeratik zuzena hautatu behar dut (harrigarria izanik Bilbon argitaratutako liburua da): 1. *Erlearen kazkabarra oso minbera izaten zela banekien*, 2. *Erlearen kozkazoa oso mintsua izaten zela banekien*, 3. *Erlearen kezka oso mingarria izaten zela banekien*, 4. *Erlearen kaskazuria oso mintsua izaten zela banekien*. Hau arazoa! Niretzat erleak *zaztatu* edo *ziztatu* egin dezake, eta berak

egindakoa *zaztada* edo *ziztada* litzateke. Gainera, erlearen *zaztada minbera* edo *mingarria* dela esango nuke; *mintsua* ulertzen dut, baina ez darabilt. Gainera, bizkaieraz *mintsua* beste zerbaite ere izan daiteke. *Kazkabarra* badakit zer den, nik *txingorra* esaten dudan arren. *Kozkazoa* zer den ez dakit, baina bukaerako atzizkia gaztelaniatik erakarrita dela iruditzen zait. *Kezka*, argi dagoen legez, baztertu egin dut. *Kaskazuria* oso bitxia iruditzen zait. Zein aukeratu? *Minbera* aukeratu dut. Bada, oker nago! Zuzena *Erlearen kozkazoa oso mintsua* esaten duena da eta. Harrigarria, benetan, nire jakinduria eza eta nire logika eskasa!

Zergatik jakin behar dugu edozein txokotan edo euskalkitan erabiltzen diren hitzak, aldi berean euskalki oso baten egiturak, hitz formak edo den delakoak baztertu ere egiten direnean?

Oro har, gramatika erlatibizatu egin beharko genuke. Gramatika arauak esan nahi dut. Komunikagarritasuna bultzatu beharko genuke. Kontuz ibili beharko gineteke, baita ere, txokoetan zehar erabiltzen diren hitz eta esapide bereziekin, sarritan beste leku batean esaten denarekin bat ez datozelako.

## 5.5. Eskola

Eskolari, helburuak argi uztea eskatuko nioke. Metodologia planifikatzea, curriculumaz zehaztea eta lerro argia izatea. Ezin dira katedra eskubideak gorde. Irakasleek taldea osatzen dute eta planifikatutakoa bete behar dute.

Eskolak jakin behar du hizkuntza ez dela bakarrik irakasgai batean erakusten dena, curriculum osoaren bitartez baino, eskola osoaren bidez baino. Eskolak jakin behar du hizkuntzaren irakaskuntza eskolaren oinarriko helburua dela.

